



Nire lekuko izango zarete

1. Bideoa proiektatu
<https://www.youtube.com/watch?v=8slmnHxxxh8>
2. Elkarrizketan jardun: zer gertatu zaigu deigarrien?
3. Hainbat esaldi gogoratu (azpimarrak). Eranskinean
 - Nork dio?
 - Nola laburbilduko genuke esaldia hitz batez?
 - Taldekide bakoitzak lekuko-misiolariari dagokion jarreretako bat deskribatzen duen hitza aukeratu eta post-itean idatziko du
 - Altxatu, hitza irakurri eta papelografoan itsatsi
4. Lekuko-misiolari izan behar dugu. Horretarako, eta aukeratutako jarrerera kontuan hartuta, zer egin behar dugu?
5. Saioari amaiera emateko, Domund eguneko otoitza egin dezakegu.

ERANSKINA: BIDEOAREN IDAZKIA JARDUERARAKO AZPIMARREKIN

-Txiki-txikitatik misioetan interesa zuen umea izan nintzen.

Hasieran, abentura bat besterik ez zen niretzat. Baina, pixkanaka, misiolariekin hitz egiten, ulertu nuen misiolariaren zeregina Jesu Kristoren berri ematea dela.

-Sierra Leona bezalako herrialde batean **misiolaria izatea abentura zoragarria da.** Jesusen lekukoa izatea egunero-egunero Jainkoaren Probidentziaren pean bizitzea da.

-Lekukoa izateak esan nahi du gure nagusiengandik jaso duguna, fedea eman digutenengandik jaso duguna, besteengana eramatea, argi bat eramaten duenak bezala, Jesu Kristorengan fedea ez duten lekuetara argia eramateko.

-Lekuko izateak, nire ustez, jendearekin oso harreman positiboa izatea esan nahi du, aitatasuneko harremana izatea. Jendeak bere gotzainarengan konfiantza izatea, alderdi guztietan.

-Nik duela urte askotatik –44 urte ditut orain, egin berriak– sentitzen dut zerbait dudala emateko, eta hori da niretzat bizitza orain.

-Hemen 80 urteko misiolariak ezagutu ditut, Afrikan edo Sierra Leonan 50 urte daramatzatenak eta gerra bizi izan dutenak, eta ahizpak ere bai, ez?

-Matxinoek 91. milian atxilotu zituzten lehen erlijiosoak izan ginen. 10 ahizpa eta bi boluntario amerikar atzeman zituzten matxinoek.

-Hori misiolarietako zintzo jokatzeko esaten dut. **Kongregazioek beldurra izan zuten, dena bertan behera uztera behartu zituzten. Baina, gero, ia guztiak itzuli ziren.**

-Zer sentimendu zituen Jesusek? Hona etorrita, hau ikusi dut: **Jesus hemen egon balitz gerraren unean, zer egingo zuen? Nola iragarriko zuen Jainkoaren Erresuma?** **Ziur-ziur haur anputatuei lagunduko zien hasiera-hasieratik, ez zituen bakarrik utziko, ez zituen itxaropenik gabe utziko, hitza hutsa izan baitaiteke ekimenik ez badu, zertzen**

ez bada, karitaterik ez badago, batez ere. Eta, orduan, haur anputatuekin jardun behar izan nuen.

-Eta ebolaren garaian ere gauza bera gertatu zen: inork ez zuen alde egin, eta oraindik-orain, brother Manuelen falta sumatzen dugu. Guk brother Manuel deitzen diogu, Lunsarren, San Joan Jainkoarena ospitalean. Eta zergatik kutsatu zen? Bada kutsatuta zegoen erizain bat zaindu nahi izan zuelako. Ez zion esan kutsatuta zegoela. Hala, berak ez zuen behar besteko arretaz jokatu, erizain batengan konfiantza zuen-eta. Eskuzabaltasunaren ondorioz kutsatu zen; baina eskerrak eman nahi dizkiot Espainiara eramateko hegazkin bat bidali zuenari. Hegazkina iristen ari zela jakin nuenean, brother Manuel bizirik edo hilda Espainiara itzuliko zela jakin nuenean, lasaitu egin nintzen, hemen bakar-bakarrik hilobiratuko baitzuten. Eta niretzat, elizbarrutiko gotzain moduan, barne-tragedia bat izango zen. Gutxienez, Afrikari eta Sierra Leonari bizitzaren urte asko eman zizkion misiolari batek merezi duen hileta izan zuen.

-Jesusen lekuko izatea egunero Jainkoaren Probidentziaren pean bizitzea da, eta, aldi berean, lekuko hori izaten saiatzea, gauden lekuan gaudela. Irakasten duenak Jesusen izenean irakastea. Sendatzen duenak Jesusen izenean sendatzea. Erromesak hartzen dituenak Jesusen izenean egitea. Egunero, Jainkoak agintzen dituen gauzak egitea, Jesusen izenean.

-Nire ustez gure urterik onena izaten ari da, oraingoan, eta, jakina, gure ezkontzatik onena, gure bizitzako unerik onena izaten ari da hau. Merezi du Kristorengatik bizitza ematea, merezi du besteei lotzea, misiora etortzea, Jaunaren lekuko sendoa behar duten beste pertsona batzuk ezagutzea.

Eta, funtsean, horretara deitzen badizu Jaunak, beti mereziko du, baietz esateak zoriontsu egingo zaitu, eskatzen dizuna eskatzen dizula. Misioari bada, misioari bai esatea.

-Hona hemen Jesu Kristoren lekuko baten lehen lekukotza handia: jende hauekin buru-belarri aritzea, nola egingo dudan pentsatu gabe, lortuko dudan ala ez pentsatu gabe. Probidentzia handia izan da, Probidentzia beti egon da une hauetan, bidea zuzena den seinale, Jainkoaren borondatea betetzen ari den seinale. Hori garrantzitsua da niretzat.

-Afrikako misiolariengan hau ikusten dut: **aldaketa gehien lortzen dituztenak dira, hemen geratzen direnak baitira.** GGKE edo elkarte edo fundazio asko denbora batez etortzen dira, zerbait egin eta joan egiten dira, gero. **Misiolariek ekin eta ekin jarraitzen dute.**

-Eta haientzat Familia Murialdo Etxea sortu nuen. Han, gerrako mutilatuek, gerrako umezurtzek, gero ebolak utzitakoek, eta gero beste hainbat gauzak eragindakoek bizitzeko itxaropena topatu dute. Familia bat topatu dute, eta bizitzeko poza ere bai. Haietako asko profesionalak dira, gizarte-langileak, erizainak medikuak, ingeniariak... esku baten faltan, baina lortu zuten, lortu zuten.

-Parrokian, haur-talde bat daukagu, eta etortzen dira... Zer modutan etortzen dira... Haurrek Jesusez gehiago irakats diezaiezun behar dute, ezagutu, haiekin jolastu, bizitza partekatu auzoko parroketan asteartero dituzten otoitz-taldeetan. Arrosarioa errezatzen dugu, Ebanjelioa irakurtzen, bakoitzak Jesusen hitzek zer esaten dien adierazten die besteei. Eta oso polita da Kristorengan sinesten ez dutenen artean egitea, korrikan dabiltzan haurren artean, oiloak nonahi dabiltzan lekuan, xumetasun handiz. Fedea da, Ebanjelioaren xumetasunean bizia.

-Adibidez, haiekin dudan **lanetako bat berriro amesten has daitezen lortzea da.** Alde batetik, errementaritzaren tradizionalaren atala daukagu, nolabait esatearren. Errementaritzaren oinarritzak ikasten dute: mahaiak, ateak, leihoak egiten. Beno, den-dena... teilatuak, edozer gauza. Beste alde batetik, nire proiektua bat, pertsonalagoa, haurrentzako parkeak egitea da; hau da, play groundsak, baina material birziklatuarekin eginak. Eta, jakina, gero herrietara joaten garenean, bat-batean, mila haur daude edo seiehun, haietan jolasteko zain, eta han daude... Hainbeste haur ikusten dituzu zoriontsu... gehienak ez baitira inoiz atrakzioaren batean ibili.

-Gerra asko daude munduan. Eta ezikusiarrena egiten dugu.

Hau esaten duen erretra bat dute Sierra Leonan: "Arrainek negar egiten dutenean, inork ez ditu haien malkoak ikusten." Arrainen malkoak ikus ditzaten irakatsi nahi nieke guztiei.

Gainerakoen arazoak guretzat hartzen irakatsi nahi nieke guztiei.

-Laborea handia da –Jesusek ere esan zuen– eta misiolari asko falta dira. Agian, norbaitek esan zuen bezala, misioetan ez da beharrezkoa diru asko izatea, eta behar da, bai. **Misioetan behar dena da misiolari gehiago egotea. Ez sagaratuak soilik, gazteak ere bai, boluntarioak, lan zoragarria, agian gurea baino zirrargarriagoa, egiten dutenak.**

-Ni, hemen egoteko, proiektua lagunduko duten emaileak behar dira, eta egunero-egunero hemen egongo diren misiolariak ere bai. Falta da... Maitasun-lana da, maitasuna... Proiektua gauzatzeko dirua ematen duenak ere maitasuna ematen duelako; hau da, horiek gabe ere ezin izango genuke ezer egin, beste aldean gu lagundu nahi gaituzten jende hori gabe.

-Nik diru kopuru handi samarra jasotzen dut urtero, gotzainari elizbarrutiaren kudeaketan laguntzeko. Gaur egun, Elizak diru-baliabide gutxiago ditu, baina giza baliabide gehiago, Jainkoari eskerrak, eta oso garrantzitsuak dira.

-Normalean, plater bat ekartzen zidan niretzat bakarrik, koilara batekin, eta nik jan egiten nuen.

Arroza jaten hasi nintzen, behin, bi aldiz. Hirugarren aldian neska bat geratu zen nire parean ahoa irekita, eta koilara hartu eta ahoan jarri nion, jan zezan. Eta gero beste batek jan zuen, eta gero beste batek.

Banatzen amaitu nuenean, koilara berarekin jaten jarraitu nuen.

Neskato batek hau esan zuen –ez nukeen entzun behar– “Honek bai maite gaituela. Maite gaitu”.

Zergatik? Koilara bera erabili dudalako jateko.

-Maitatzea ez da dirua ematea, bizitza partekatzea da. Egia da dirua beharrezkoa dela, baina bizitza partekatzea, mina eta egoera partekatzea...

-Sierra Leonak asko du munduari emateko, eta, bereziki, Espainiari emateko. Nahiago nuke misiolari gehiago etorriko balira, boluntario gehiago. Denek dute zer ematekoa.

-Norbaiti zerbait esan behar badiot, hau esaten diot: “maitatu”.

Ez dadila inoiz inor egon, ez zaitezten inoiz pasatu, sufritzen ari den norbaitengandik hurbil zure presentzia esanguratsua izan gabe, berarentzat esanguratsua izan gabe.

-Oso gauza soil bat esan nahi dut: izan zaitezte misiolarien harro, misiolariak ez baitira Espainiako Elizaren ordezkari soilik, herrialde osoaren ordezkari dira. Eta misiolari batek zerbitzu-ekintza bat egiten duenean, misiolari batek pertsona bat salbatzen duenean, misiolari batek familia bati laguntzen dionean arazo bat konpontzen, Espainia da hori egiten ari dena, eta asko eskertzen dizuegu. Izan zaitezte haien harro, eta jarraitu laguntzen.

-Eta zorionez Jainkoak *ad gentes* misiora deitzen bazaitu, ba, esan baietz, merezi baitu txikienen artean haren maitasunaren lekuko izatea, baita Berarengandik urrunduta daudenen artean ere, Jainkoaz hitz egiten entzun ere egin ez dutenen artean ere.

Orduan, misiolariak funtsezkoak dira. Misiolaririk ez badago, Eliza desagertu egingo da.

-Hemen hasi nintzen Jainkoarengan sinesten. Familia katoliko batekoa naiz. Amonak eramanez ninduen, inoiz, elizara. Nire amak zuen elizara joaten jarraitu. Eta nik, benetan, erreparatu ere ez nion egin. Eta, izan ere, une horietan aurreiritziren bat ere izan nezakeen. **Eta hemen ikusten dut gehien Jainkoaren ekintza, eta bizi egiten dut.** Izan ere, igandero joaten naiz mezatarara. **Litekeena da, elkarrekin lan egiten badugu** –agian, erromantikoa dirudi– **mundua hobea izatea.** Jende asko egiten ari da lan mundu ederrago bat sortzeko, eta jende horrekin egon behar dugu.